

## Gerrako grafitiak: Izen propioak dituen gatazka

Villarrealako Batailaren ondoren, frontea berriro egonkortu egin zen; egitez, "solidotu" egin zen frontea. Gerra posizioak, ordura arte modu prekarioan eraikitakoak, sendotu egin ziren, eta hormigoizko gotorleku bana eraiki zen lubaki eta arantzazko alanbreen ondoan. Keturako metrailadorearen bi habiak dira horren adibide ona. Gotorleku horiek Errepublikaren lehen lerroaren zati ziren, eta 1937ko martxoaren 10ean amaitu ziren. Dataren zehaztasunaren arrazoia da gotorlekuek berek halaxe azaltzen digutela.



*Mendebaldeko gotorlekua (ezk.) eta ekialdeko gotorlekua (esk.).*

Izan ere, gotorleku horiek eraiki eta aldeztu zituztenak gurekin jarraitzen dute... Edo, behintzat, haien lekukotasunak. Gotorleku horiek 2017an ikertu zituen Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) talde batek. Indusketak emaitza benetan interesgarririk eman ez bazuen ere –40ko hamarkadan hortik hurbil Urrunagako urtegia eraikitzean inguruak jasan zuen aldaketaren ondorioz–, dozenaka grafiti ageri dira oraindik gotorleku horietan, zaintzen zutenek porlan egin berritan gauzatuak. Aipatu grafitiak historiaurreko petroglifoen azterketan erabilitako metodologia berari jarraituz ikertu ziren. Argiztapen artifizialean eta 3D-ko modelatze fotogrametrikoan egindako aurrerapenei esker, hogeita hamar inskripzio baino gehiago berreskuratu ahal izan dira.

Era horretan dakigu gotorleku horiek "Madril Batailoia" delakoak defendatu zituela, hau da, Eusko Gudarosteko Langileen Batasun Orokorreko (UGT) 5. batailoia. Haren ideologia ezkertiarra ondo zainduta geratu da bertako igitaia eta mailua bezalako ikurrei eta hainbat inskripziori esker, "Viva el Ejército Rojo" (*Gora Armada Gorria*) dioen bat, kasu. Grafitien azterketak aukera ematen digu, halaber, erabateko gerra bati izen-abizenak jartzeko, non pertsonak erraz bilakatzen baitziren zifra estatistiko huts. Halatan, badakigu hemen Aurelio Álvarez kapitaina, Nicolas Cela, Pablo Mendieta, Fidel Fernández edo José Luis Garay borrokatu zirela, guztiak 4. konpainiako

kideak. Bizkaiko Ezkerraldeetik zetozen gehienak, eta euskal langile mugimenduak faxismoaren aurka hasitako borrokaren testigantza dira.



Baina, horrez gain, badago gerrari buruz dugun ikuspegi tradizionalari iskin egiten dion lekukotasun bat. Inskripzioen artean, "Katalina" baten sinadura ageri da. Emakume hori ez da agertzen batailoiares dokumentazio ofizialean, eta azalpen tradizional batek pentsatuko luke borrokarietako baten "emakumea", "ama" edo "alaba" litzatekeela. Virginia Woolf idazleak behin esan zuen, historian zehar gure literatur lan handi askotan agertzen den "anonimo" hori, askotan, emakume bat zela. Eta, horrela, "Katalinaren" esku anonimoak agian gehiago hitz egiten digu emakumeak historian izan duen ikusgarritasun ezaz eta haien borroka isilaz, baita euskal gerran ere, gizon batek emandako testigantzaz baino. Nolanahi, misterio arkeologikoa da, oraindik ere, Katalina, ziurrenik emakume izate hutsagatik. Gatazka hasi eta zortzi hamarkada geroago, gerraren historiaren erdia kontatu gabe dago oraindik.

JOSU SANTAMARINA OTAOLA. ZIGOITIKO MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK

(2019-02-07) ERREPUBLIKAKO FRONTEA (1936-1937)